

Loriga eta Neuman idazleek eta Aitor Ocio Athleticeko jokalaria itxiko dute "Letrak eta futbola" hitzaldi zikloa

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak eta Athletic Club Fundazioak, Foru Liburutegiarekin batera, bigarren urtez jarraian antolatu duten 'Letrak eta futbola' izeneko zikloko hirugarren mahai-inguruaren protagonistak Ray Loriga eta Andrés Neuman idazle ospetsuak eta Athleticeko Aitor Ocio futbolaria izango dira. Azken mahai-inguru hori bihar egingo da, hilak 19an (osteguna), 19:00etan, Foru Liburutegian.

Literaturaren eta futbolaren arteko loturak elkarrekin aurkitzeko espazioa. Biharkoarekin bukatuko diren hiru jardunaldietan zehar, futbola narraziogintza laburraren gai eta eszenatoki gisa aztertu dute, 'Ipuna jokaleku' tituluaren inguruan. Idazle handiak izan dira hizlari: hala nola Bernardo Atxaga, Kirmen Uribe, Jordi Puntí eta Ignacio Martínez de Pisón; eta haiekin batera, Athleticeko jokalaria: oraingoak, Koikili Lertxundi eta Igor Gabilondo, eta lehengoak, Josu Urrutia.

Sarrera doakoa izango da saio guztietan, baina jarleku kopurua mugatua da.

Ray Loriga (Madrid, 1967) idazlea, gidoilaria eta zine zuzendaria da. Laurogeita hamarrekotik hamarkadaren hasieran hasi zen eleberriak idazten: 'Lo peor de todo' (1992) eta 'Héroes' (1993). Eleberri hauekin arrakasta handia lortu zuen. 'Tokio ya no nos quiere' eleberriarekin (1999) espainiar narraziogintzako idazlerik interesgarrienetako bat dela erakutsi zuen; 'El hombre que inventó Manhattan' liburuarekin berretsi zuen hori (2004). Gainera 'Ya sólo habla de amor' (2008) eta 'Sombrero y Mississippi' (2010) eleberriak idatzi zituen. Zinean, zenbait zuzendariren filmetako gidoiak idazten parte hartu du (Pedro Almodóvar, Daniel Calparsolo eta Carlos Saurarekin) eta 'La pistola de mi hermano' (1997) eta 'Teresa, el cuerpo de Cristo' (2007) film luzeak zuzendu ditu.

Andrés Neuman (Buenos Aires, 1977). Argentinan jaio zen eta han eman zuen haurtzaroa. Gero Granadara joan zen bizitzera. Gaztelaniazko literaturako idazlerik onenetako bat izango dela ematen du. 22 urterekin bere lehenbiziko eleberria argitaratu zuen, 'Bariloche' (Anagrama, 1999). Herralde sariko finalista suertatu zen. Haren hurrengo eleberriak 'La vida en las ventanas' (Espasa, 2002) eta 'Una vez Argentina' (Anagrama, 2003, berriro ere Herralde sartiko finalista) izan ziren. Laugarren eleberriarekin, 'El viajero del siglo' (Alfaguara, 2009), Alfaguara saria jaso zuen eta kritikaren eta irakurleen aldetik arrakasta handia izan zuen. 2010ean Kritikaren Saria eskuratu zuen. Gainera, 'El que espera' (Anagrama, 2000), 'El último minuto' (Espasa, 2001) eta 'Alumbramiento' (Páginas de Espuma, 2006) ipuin bildumak idatzi ditu. Kontakizun laburra aztertzeko eta zabaltzeko lan handia egin du. Poema sorta hauek argitaratu ditu: 'Métodos de la noche' (Hiperión, 1998), 'El jugador de billar' (Pre-Textos, 2000), 'El tobogán' (Hiperión, 2002, Premio Hiperión), 'La canción del antilope' (Pre-Textos, 2003) eta 'Mística abajo' (Acantilado, 2008).